Lehena.- 1998rako indarra duen Aurrekontuan kreditua sortzea ondoko kontusailean: 31100-2266-4421 "Ingurugiro Mintegirako eta E.B.aren Kohesio Fondoetarako gastuak"; proiektua, 30000; lerroa, 11415-8; zenbatekoa, 1.670.314 pezeta. Europako Batzordetik 30000 proiektuko "Ingurugiro Mintegirako eta E.B.aren Kohesio Fondoetarako transferentziak" 31100-4909 kontusaileko 36685-5 lerroan izandako dirusarrera handiagoekin finantzatu da. Zenbatekoa: lehengo bera.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 27an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"3778/1998 FORU AGINDUA, irailaren 8koa, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak emana, indarra duen aurrekontuko kontusailen arteko kreditu-transferentzia onesten duena.

Ikusirik Idazkari Teknikoak gastuen proiektuko 00000 proiektuko zenbait kontusailen artean kreditu-transferentzia egiteko egin duen eskaria.

Kontuan harturik Nafarroako Foru Ogasunari buruzko 8/1988 Foru Legeko 46.2. b) artikulua xedatutakoa,

AGINDU DUT:

1go. Indarra duen gastuen aurrekontuan ondoko kontabilitate idazpena sortaraziko duen kreditu-transferentzia egitea:

Kontusail honetatik:

3.950.000	60100-6020-5111 Lerroa, 23930-9	Eraikina birmoldatzea
-----------	------------------------------------	--------------------------

Kontusail honetara

60100-1702-5111 Lerroa, 23750-0	Aparteko orduak	500.000
60000-2261-5111 Lerroa, 23700-4	Departamentuaren hainbat gastu	700.000
60100-2280-5111 Lerroa, 23850-7	Ura, gasa eta elektrizitatea	850.000

60100-6059-5111 Lerroa, 23940-6	Material anitza	400.000
60100-6060-5111 Línea 23950-3	Material informatikoa	700.000
60100-6092-5111 Línea 23960-0	Azterlan eta proiektuak	800.000
		<u>3.950.000</u>

2gn. Foru Agindu hau igortzea Idazkaritza Teknikora (Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegora), Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan Ogasunak duen Kontuhartzaitza Delegatura eta Nafarroako Parlamentura.

Iruñean, 1998ko irailaren 8an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti"

"1164/1998 EBAZPENA, irailaren 21ekoa, Barne Zuzendari Nagusiarena, kreditu-lotura maila berekoak ez diren kontusailen arteko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Foruzaingo Zerbitzuruak egin duen eskaria; haren bidez, ondoko kreditu-transferentzia eskatzen da:

Barneko kreditu-transferentzia

Proiektua, 51000

Gehitzeko kontusaila:

"Informazio prozesurako ekipoak" 02100-6060-2221 kontusaila; lerroa, 04890-2; zenbatekoa, 6.000.000 pezeta.

Kentzeko kontusaila:

"Material teknikoa" 02100-6054-2221 kontusaila; lerroa, 04870-8; zenbatekoa, 6.000.000 pezeta.

Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46. artikulua 2. idazkiak haxe xedatu du: "Nafarroako Gobernu Kontseilariak, beraien departamentuen baitan, programa bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzakete, hurrengo baldintzak betetzen badira, betiere: a) Artikulu honetako 1. zenbakiak Lehendakaritza eta Barne Kontseilariari gordetzen dizkion gaiak ez ukitzea; b) Programaren helburuak ez aldatzea.

Ikusirik Kontularitza-Kontuhartzaitzak egindako txostena, Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren urriaren 25eko 657/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordetuak ditudan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

1go.- Indarreko gastuen aurrekontuan ondoko kreditu-transferentzia egitea:

Barneko kreditu-transferentzia

Proiektua, 51000

Gehitzeko kontusaila:

02100-6060-2221 "Informazio prozesurako eki-
poak" kontusaila; lerroa, 04890-2; zenbatekoa,
6.000.000 pezeta.

Kentzeko kontusaila:

02100-6054-2221 "Material teknikoak" kontusai-
la; lerroa, 04870-8; zenbatekoa, 6.000.000 peze-
ta.

2gn.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parla-
mentura eta Barne Zuzendaritzako Kudeaketa
Ekonomikoaren Bulegora, behar diren ondorioeta-
rako.

Iruñean, 1998ko irailaren 21ean

Barne Zuzendari Nagusia: Alfredo González
Echarren"

"271/1998 EBAZPENA, abuztuaren 20koa,
Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiak
emana, 1998rako indarra duen gastuen aurrekon-
tuko kontusailen arteko kreditu-transferentziak
egitea baimentzen duena.

Ikusirik Garraio Zerbitzuko buruaren eskaria;
haren bidez eskatzen du indarra duen gastuen
aurrekontuko kontusailen arteko transferentzia
egitea.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988
Foru Legeko 46.2 b) artikulua ezarritakoarekin
bat, erregelamenduz ezarritako izapideak eta apli-
kagarri diren gainerako xedapenak bete ondoren,
eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseila-
riaren urriaren 15eko 3077/96 Foru Aginduz
eskuordetu dizkidaten ahalmenak erabiliz, Zuzen-
daritza Nagusi honek

EBATZI DU:

Lehena.- Indarra duen gastuen aurrekontuan
ondoko kontabilitate-idazpena sortaraziko duen
kreditu-transferentzia egitea:

KARGUAK

3.279.865 62100/7600/5133
Lerroa, 96039-3 "Garraio azpiegiturak"

875.139 62120/4600/5133
Lerroa, 25560-6 "Iruñerriko garraio
publikorako ekarpena"

4.155.004

ABONAMENDUAK

62100/2200/5112
Lerroa, 25330-1 "Bulegoko materiala" 600.000

62100/2264/5112
Lerroa, 25360-3 "Etxeko gastu komunak" 100.004

62110/60305133
Lerroa, 25520-7 "Ikuskaritzarako
bitartekoz hornitzea" 2.200.000

62120/6019/4133
Lerroa, 25580-0 "Gelditzeko bideak
eta markesinak" 1.255.000
4.155.004

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Idazkaritza
Teknikora (Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegora),
Ogasun Departamentuak Herrilan, Garraio eta
Komunikazio Departamentuan duen Kontuhartzai-
letza Delegatura, Nafarroako Foru Parlamentura
eta Garraio Zerbitzura.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 20an

Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagu-
siak: Angel Sanz Barea"

"EBAZPENA, 1998ko irailaren 25koa,
Lehendakaritza Idazkari Nagusiak emana, progra-
ma beraren barrenean transferentzia egitea bai-
mentzen duena.

Ikusirik Laguntza Juridikoaren Zerbitzuak egin-
dako eskaria; haren bidez aurrekontu-transferen-
tzia eskatzen da ondoko lerroetan:

Kargua	Zenbatekoa
01100-6059-1212 Bestelako altzariak lerroa 01330-0 eta ekipoak	1.000.000

Abonamendua	Zenbatekoa
01100-6060-1212 lerroa 01335-1 Ekipo informatikoak	1.000.000

Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko
8/1988 Foru Legeko 46. artikulua 2. idaztiak
hauxe xedatu du: "Nafarroako Gobernuako Kon-
tseilariak, beraien departamentuen baitan, progra-
ma bereko kredituen arteko transferentziak bai-
men ditzakete, hurrengo baldintzak betetzen
badira, betiere: a) Artikulu honetako 1. zenbakiak
Lehendakaritza eta Barne Kontseilariari gordetzen
dizkion gaiak ez ukitzea; b) Programaren helbu-
ruak ez aldatzea. Baldintza horiek bete egiten dira
kasu honetan.

Horrenbestez, Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren irailaren 25eko 658/96 Foru Agindua-ren indarrez eskuordetuta ditudan eskurantzak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Indarra duen Gastuen Aurrekontuan kredituen arteko ondoko transferentzia egitea:

Kargua	Zenbatekoa
01100-6059-1212 lerroa 01330-0	Bestelako altzariak eta ekipoak 1.000.000
Abonamendua	Zenbatekoa
01100-6060-1212 lerroa 01335-1	Ekipo informatikoak 1.000.000

2. Ebazpen hau jakinaraztea Laguntza Juridikoaren Zerbitzura, Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Kontabilitate eta Aurrekontu Kudeaketaren Bulegora eta Nafarroako Parlamentura, behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, 1998ko irailaren 25ean.

Zuzendaria: José Antonio Razquin Lizarraga¹

KONTUEN GANBARAREN TXOSTENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 6an harturiko Erabakiaren bidez, aurrekontuetan eginiko hainbat aldaketaren legezkotasunari buruz txostena eskatzea onartu zuen. Nafarroako Gobernuaren Erabakiak, bere Kontseilariaren Foru Aginduk eta zenbait Departamentu Zuzendari Nagusien Ebazpenek eragin zituzten aldaketa horiek, eta aurtengo irailean igorri zituzten Parlamentura. Horiei buruz, Kontuen Ganbarak txosten hau eman du:

Aurrekontu-aldaketak zenbait kreditu-gehikuntza, kreditu-transferentzia, kreditu-sorkuntza, kreditu-gainerapen edo kreditu-birjarpen dira, indarra duen legediarekin bat datozenak, kasu horretarako eskumena duen erakundeak egin baititu. Bestalde, aldaketa horiek bat datoz Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/88 Foru Legeko 45.etik 53.era artikuluetan ezarritakoarekin, bai eta 1998 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 1997ko abenduko 21/1997 Foru Legearen 3. eta 4. artikuluetan ere.

Iruñean, 1998ko abenduaren 24an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1998ko urrian bidali dituen Ebazpenen , Foru Aginduen eta Erabakien bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko azaroaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarari txostena eskatzea 1998ko urrian Nafarroko Parlamentura bidali ziren Ebazpenen, Foru Aginduen eta Erabakien bidez gauzatutako aurrekontu-aldaketen legezketasunari buruz.

Era berean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko otsailaren 2an egindako bilkuran, haxe erabaki zuen: Kontuen Ganbarak aipatu Ebazpenei, Foru Aginduei eta Erabakiari buruz emandako txostenaren edukiaz jabetu dela adieraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko otsailaren 3an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

“52/1998 FORU AGINDUA, 1998 urriaren 1ekoa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariarena, 10. Programa por la que se autoriza una transferencia entre partidas del Programa 10 “Inbertsioei buruzko azterlanak eta plangintza”.

Ikusirik Afera Ekonomikoen eta Araubide Administratiboaren Atalak egin duen txostena; haren bidez, 1998ko Gastuen Aurrekontuko programa bereko kontusailen arteko transferentzia proposatzen da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen 46. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeak eskuordetu zizkidan eskurantzak erabiliz, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak

AGINDU DUT:

1go. 1998rako Gastuen Aurrekontuan 10 Programako “Inbertsioei buruzko azterlanak eta plangintza” kontusailen arteko ondoko transferentzia egitea:

	Kentzeko kontusaila	Zenbatekoa
9120-6020-3132 Lerroa, 31930-2	“Plan Gerontologikoaren inbertsioak zentro berekietan”	4.000.000

	Gehitzeko kontusaila	Zenbatekoa
9120-7600-3132 Lerroa, 31970-1	“Inbertsioak Plan Gerontologikoan. Transferentziak toki enteei”	4.000.000

2gn. Foru Agindu hau igortzea Nafarroako Parlamentura eta Afera Ekonomikoen eta Araubide Administratiboaren Atalera, behar diren ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko urriaren 1ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda”

“323/1998 EBAZPENA, irailaren 30ekoa, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiak emana, 1998rako indarra duen Gastuen Aurrekontuan kontusailen arteko kreditu-transferentzia baimentzen duena.

Ikusirik Garraio Zerbitzuko buruak egin duen eskaria; haren bidez, kreditu-transferentzia eskatzen da indarra duen Gastuen Aurrekontuko kontusailen artean.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 46.2 b) artikulua ezarritakoarekin bat, erregelamenduz ezarritako izapideak eta aplikagarri diren gainerako xedapenak bete ondoren, eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren urriaren 15eko 3077/96 Foru Aginduz eskuordetu dizkidan ahalmenak erabiliz, Zuzendaritza Nagusi honek

EBATZI DUT:

Lehena.- Indarra duen gastuen aurrekontuan ondoko kontabilitate-idazpena sortaraziko duen kreditu-transferentzia egitea:

Karguak		
288.665	62120/4600/5133 Lerroa, 25560-6 “Iruñerriko garraio publikorako ekarpenak”	
288.665		
Abonamenduak		
62100/2200/5112 Lerroa, 25330-1	“Bulegoko materiala”	200.000
62100/2202/5112 Lerroa, 25340-9	“Harpidetzak eta liburuak”	25.000

62100/2262/5112		
Lerroa, 25350-6	"Publizitatea eta propaganda"	3.665
62100/2284/5112		
Lerroa, 25410-3	"Garbiketa materiala"	30.000
62100/6060/5112		
Lerroa, 25470-7	"Ekipo informatikoak"	30.000
		288.665

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Idazkaritza Teknikora (Kudeaketa Ekonomikoaren Bulegoa) Ogasunak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuan duen Kontuhartzaitza Delegatura, Nafarroako Parlamentura eta Garraio Zerbitzura.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean

Garraio eta Telekomunikazio zuzendari nagusia: Angel Sanz Barea"

"Nafarroako Gobernuak, 1998ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Martxoaren 1eko 81/1993 Foru Dekretuaren bitartez, Nafarroako Gobernuak adierazi zuen Nabaskozeko lurzati antolamendua interes publikoa eta presakoa zela.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Nekazaritza Egituren Zerbitzuak ondokoa aurreikusi du: Nabaskoze aldean bideak eta ustubideak egiteko proiektuko obrak egitea. 1999. urterako 120.000.000 pezeta aurreikusi dira, eta 2000. urterako, berriz, 104.927.053 pezeta aurreikusi dira; guztira, 224.927.053 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/88 Foru Legeko 41. artikulua eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legeko 31.3 artikulua ezarritakoari jarraituz, Nafarroako Gobernuak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak proposatuta,

ERABAKI DUT

1go. Urte anitzeko gastu bat egin dadin baimentzea; izan ere, Nabaskoze aldean bideak eta ustubideak egiteko proiektuko obrak egiteko.

2gn. Baimenak 224.927.053 pezeta aurreikusten ditu; zenbateko hori ondoko kontusailari egotzi zaio: "Eraberritzea eta hobetzea, Lurzati konzentrazioa eta Jabetza birrantolatzeko obrak, 5b Helburuko eskualdean" 72220-6019-5312 kontusaila; lerroa, 97030-5:

– 120.000.000 pezeta 1999ko kontusailaren kargura eta 104.927.053 pezeta (gainerakoa) 2000. urterako gastun aurrekontuaren kargura.

3gn. Baimena ematea Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilari obren kontratua egin dezan obren kontratua egin dezan.

4gn. Erabaki hau igortzea Ekonomi eta Ogasun Departamentura eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura, Nafarroako Parlamentura eta Nekazaritza Egituren Zerbitzura."

"470/1998 EBAZPENA, irailaren 11koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana; horren bidez, kreditu-transferentziak egiteko aurrekontu baimena ematen da.

Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kreditu-transferentzia eskatu du. Hain zuzen ere, ondoko kontusailatik: kontusaila, "Irunlarrea inguruan zenbait jarduketara egitea"; lerroa, 17400-2; zenbatekoa, 28.000.000; kontusaila, "Proiektu teknikoak"; lerroa, 17440-1; zenbatekoa, 12.000.000 pezeta; kontusaila, "Komunikazio sareak eta eraikinak kableztatzea"; lerroa, 17410-0; zenbatekoa, 11.500.000 pezeta; kontusaila, "Historien artxiboa egokitzea"; lerroa, 17930-6; zenbatekoa, 2.000.000 pezeta. Kredituak ondoko kontusailetara transferituko dira: kontusaila, "Plan Zuzentzaileko obrak"; lerroa 95055-0; zenbatekoa, 10.000.000 pezeta; kontusaila, "Emakumeari arreta egiteko Plana, obrak eta ekipamendua"; lerroa, 19135-7; zenbatekoa, 40.000.000 pezeta; kontusaila, "Ekipo medikoak berritzea"; lerroa, 95035-5; zenbatekoa, 3.500.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 47. artikulua ezarritakoari jarraituz, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak kapitulu ekonomiko bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzake, Departamentu bereko programa ezberdinetakoak izanik aipatu programen helburuak aldatzen ez badira. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998rako indarra duen gastuen aurrekontuan, kreditu-transferentzia egitea. Hain zuzen ere, ondoko kontusailetatik: kontusaila, 52000-6020-4127; proiektua, 40000; izena, "Irunlarrea inguruan zenbait jarduketara egitea"; lerroa, 17400-2; zenbatekoa, 28.000.000 pezeta; kontusaila, 52000-6091-4127; proiektua, 40000; izena,

“Proiektu teknikoak”; lerroa, 17440-1; zenbatekoa, 12.000.000 pezeta; kontusaila, 52000-6031-4127; proiektua, 40000; lerroa, 17410-0; izena, “Komunikazio sareak eta eraikinak kableztatzea”; zenbatekoa, 11.500.000 pezeta; 52220-6059-4127; proiektua, 41000; lerroa, 17930-6; izena, “Historien artxiboa egokitzea”; zenbatekoa, 2.000.000 pezeta. Ondoko kontusaila egiten da kreditu-transferentzia: kontusaila, 52240-6020-4127; proiektua, 43000; lerroa, 95055-0; izena, “Plan Zuzentzaileko obrak”; zenbatekoa, 10.000.000 pezeta; 52240-6020-4127; proiektua, 43000; lerroa, 19135-7; izena, “Emakumeari arreta egiteko Plana, obrak eta ekipamendua”; zenbatekoa, 40.000.000 pezeta; a la partida 52500-6057-4127; proiektua, 46000; lerroa, 95035-5; izena, “Ekipo medikoak berritzea”; zenbatekoa, 3.500.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Osasun Departamentura (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuko Kontuhartzailatza Delegatura.

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez”

“**483/1998 EBAZPENA**, irailaren 17koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana; horren bidez, kreditu-sorkuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketak baimentzen dira.

Ikusirik Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak egin dituen eskariak; haietan, kreditu-sorkuntzaren bidezko kreditu-gehikuntzak proposatzen dira, ondoko kontusaila: kontusaila, “Energjarako kogenerazio instalazioa mantentzea. Kontratua SINA Erenkin”; lerroa, 18540-3; zenbatekoa, 965.284 pezeta; kontusaila, “Entseiu klinikoak”; lerroa, 18485-7; zenbatekoa, 482.842 pezeta. Ondoko kontusaila egiten da kreditu-transferentzia: kontusaila, “Energjarako kogenerazio instalazioa”; lerroa, 37610-9; zenbatekoa, 965.284 pezeta; kontusaila, “Entseiu klinikoetarako transferentziak”; lerroa, 37617-6; zenbatekoa, 482.842 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluko 1. puntuko a) eta b) letretan ezarritako arabera, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenen.- 1998rako indarra duen aurrekontuan, kreditua sortzea ondoko kontusaila: kontusaila, 52230-2280-4121; proiektua, 42000; lerroa, 18540-3; izena, “Energjarako kogenerazio instalazioa mantentzea. Kontratua SINA Erenkin”; zenbatekoa, 965.284 pezeta; kontusaila, 52230-2269-3-4121; proiektua, 42000; lerroa, 18485-7; izena, “Entseiu klinikoak”; zenbatekoa, 482.842 pezeta. Ondoko kontusaila egiten da kreditu-transferentzia: kontusaila, 52230-3309; proiektua, 42000; lerroa, 37610-9; izena, “Energjarako kogenerazio instalazioa”; zenbatekoa, 965.284 pezeta; 52230-4700; proiektua, 42000; lerroa, 37617-6; izena, “Entseiu klinikoetarako transferentziak”; zenbatekoa, 482.842 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Osasun Departamentura (Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuko Kontuhartzailatza Delegatura.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez”

“**484/1998 EBAZPENA**, irailaren 17koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana; horren bidez, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketa bat baimentzen da.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Nafarroako Estatistika Institutuak kreditu-transferentzia eskatu du. Hain zuzen ere, kontusail honetatik: kontusaila, “Estatistika unitateen direktorioak”; lerroa, 07420-2; zenbatekoa, 3.000.000 pezeta. Ondoko kontusaila egiten da kreditu-transferentzia: kontusaila, “Bestelako altzariak eta ekipoa”; lerroa, 07310-9.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46. artikuluko 2 puntuak ezarritakoarekin bat, kasuan kasuko Departamentuan, Nafarroako Gobernu Kontseilariak programa bereko kredituen artean transferentziak baimen ditzakete, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehenen.- 1998rako indarra duen gastuen aurrekontuan, kreditu-transferentzia egitea. Hain zuzen ere, kontusail honetatik; proiektua, 15000; kontusaila, “Estatistika unitateen direktorioak”; 11520-6092-5512; lerroa, 07420-2. Ondoko kon-

tusailera eginen da transferentzia: kontusaila "Bestelako altzariak eta ekipoa" 11500-6080-5512; lerroa, 07310-9; zenbatekoa, 3.000.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Nafarroako Estatistika Institutua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuko Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko irailaren 17an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"487/1998 EBAZPENA, irailaren 21ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana; horren bidez, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketa bat baimentzen da.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Nafarroako Estatistika Institutuak kreditu-transferentzia eskatu du. Hain zuzen ere, kontusail honetatik: izena, "Estatistika koiunturalak"; lerroa, 07350-8. Ondoko kontusailera egin da transferentzia: izena, "Nafarroako Ekonomia Aztertzeako Jardunaldiak"; lerroa, 07245-5; zenbatekoa, 2.100.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 46. artikuluko 2 puntuak ezarritakoarekin bat, kasuan kasuko Departamentuan, Nafarroako Gobernuak Kontseilariak programa bereko kredituen artean transferentziak baimen ditzakete, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nere esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998rako indarra duen gastuen aurrekontuan, kreditu-transferentzia egitea. Hain zuzen ere, kontusail honetatik: 11510-6092-5512 kontusaila, izena, "Estatistika koiunturalak"; lerroa, 07350-8; proiektua, 15000. Transferentzia kontusail honetara eginen da: izena, "Nafarroako Ekonomia Aztertzeako Jardunaldiak" 11500-2269-5512; lerroa, 07245-5; zenbatekoa, 2.100.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Nafarroako Estatistika Institutua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuko Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko irailaren 21ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"488/1998 EBAZPENA, irailaren 21ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana. Horren bidez, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketak baimentzen dira.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko idazkari teknikoak kreditu-transferentzia eskatu du. Hain zuzen ere, kontusail honetatik: izena, "Lurzoru eta etxebizitza publikoak mantendu, kudeatu eta administratzea"; lerroa, 11010-1; zenbatekoa: 27.000.000 pezeta. Ondoko kontusailletara eginen da transferentzia: izena, "Bulegoetako lokalak konpondu eta mantentzea"; lerroa, 10560-4; zenbatekoa, 5.000.000 pezeta; izena, "Dietak, lokomozioa eta bidai gastuak"; lerroa, 11300-3; zenbatekoa, 22.000.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 47. artikuluko ezarritakoari jarraituz, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak kapitulu ekonomiko bereko kredituen arteko transferentziak baimen ditzake, Departamentu bereko programa ezberdinetakoak izanik aipatu programen helburuak aldatzen ez badira. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998rako indarra duen aurrekontuan, kreditu-transferentzia egitea. Hain zuzen ere, kontusail honetatik: Proiektua, 20000; kontusaila 32200-2269-4311 "Lurzoru eta etxebizitza publikoak mantendu, kudeatu eta administratzea"; lerroa, 11010-1; zenbatekoa, 27.000.000 pezeta. Ondoko kontusailletara eginen da transferentzia: kontusaila, 30120-2120-4421; proiektua, 00000; lerroa, 10560-4; izena, "Bulegoetako lokalak konpondu eta mantentzea"; zenbatekoa, 5.000.000 pezeta; kontusaila, 31000-2300-4421; proiektua, 30000; lerroa, 11300-3; izena, "Dietak, lokomozioa eta bidai gastuak"; zenbatekoa, 22.000.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura (Idazkari-tza Teknikoa), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuko Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko irailaren 21ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"494/1998 EBAZPENA, irailaren 21ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana. Horren bidez,

kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketa bat baimentzen da.

Ikusirik Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Langileri Zerbitzuak egin duen eskaria; haren bidez, kreditu-gehikuntza eskatzen du ondoko kontusailean: izena, "Erretiro aurreratua-rengatiko kalteordaina, 259/1988 Foru Dekretua"; lerroa, 02070-6; zenbatekoa, 1.874.716 pezeta. Ondoko kontusailean aurreikusi den gerakinarekin finantzatu da: izena, "Gainerako erabakietarako fondoa, 1996-1999"; lerroa, 01690-3.

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikulua 1. puntuko i) idazatian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998rako indarra duen gastuen aurrekontuan, kreditu-gehikuntza egitea. Hain zuzen ere ondoko kontusailetan: kontusaila, "Erretiro aurreratua-rengatiko kalteordaina, 259/1988 Foru Dekretua" 4120-1614-3141; proiektua, 20002; lerroa, 02070-6; zenbatekoa, 1.874.716 pezeta. Ondoko kontusailean aurreikusi den gerakinaren kargura finantzatu da: kontusaila, 04000-1620-1226; proiektua, 20000; lerroa, 01690-3; izena, "Gainerako erabakietarako fondoa, 1996-1999".

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Lehendakaritza eta Barne Departamentura (Langileri Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuko Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1998ko irailaren 21ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez"

"495/1998 EBAZPENA, irailaren 21ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana. Haren bidez, kreditu-gehikuntzaren bidezko zenbait aurrekontu-aldaketaketa baimentzen dira.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Idazkaritza Teknikoak kreditu-gehikuntza eskatu du ondoko kontusailean: izena, "Eremu ez-euskalduneko ikastoletarako dirulaguntza berezia"; lerroa, 15150-9; zenbatekoa, 23.160.292 pezeta. Ondoko kontusailean dagoen kreditu baliagarriaren kargura finantzatu da: izena, "Hezkuntza ertaineko

eta goi mailako ikasketetarako beka eta dirulaguntzak"; lerroa, 12810-8.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikuluan 5. puntuko k) idazatian eta, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998rako indarra duen aurrekontuan, kreditu-gehikuntza bat egitea ondoko kontusailean: kontusaila, 43200-4811-4551; proiektua, 60000; lerroa, 15150-9; izena, "Eremu ez-euskalduneko ikastoletarako dirulaguntza berezia"; zenbatekoa, 23.160.292 pezeta. Ondoko kontusaileko kreditu baliagarriaren kargura ordainduko da: kontusaila, 41110-4800-4251; proiektua, 10002; lerroa, 12810-8; izena, "Hezkuntza ertaineko eta goi mailako ikasketetarako beka eta dirulaguntzak".

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Hezkuntza eta Kultura Departamentura (Idazkaritza Teknikoa), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuko Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1998ko irailaren 21ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabalaga Rodríguez"

"506/1998 EBAZPENA, irailaren 24koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana; haren bitartez, kreditu-sorkuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketak baimentzen dira.

Ikusirik Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egin duen eskaria; hartan, ondoko kontusailean kreditua sortzea eskatzen zen: izena, "Ekipo eta programa informatikoak"; lerroa, 26730-2; zenbatekoa, 13.000.000 pezeta. MAPAk ondoko kontusailean egin dituen dirusarrera handiagoeekin finantzatu da: izena, "FEOGA-Gtik jasotako transferentziak. Kontrol eta prebentzio neurriak"; lerroa, 38455-1; zenbatekoa: lehengo bera.

Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluan, 1. puntuan, a) letran xedatzen denez, aurrekontuetako gastuen egoera-orrian kredituak sortu ahal izango dituzte Foru Komunitateko Administrazioarekin edo bere organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko edo sozietate publiko batekin izaeragatik horien helburuen artean aurkitzen diren gastuak finantzatzeko Administrazio Publikoek egindako ekarpenetatik eratorritako diru-

sarrerek. Ekonomia eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduaren bidez eskuordetu zaizkidan eskumenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998rako indarra duen aurrekontuan, kreditua sortzea ondoko kontusailean: kontusaila, 70130-6060-5512; proiektua, 10000; lerroa, 26730-2; izena, "Ekipo eta programa informatikoak"; zenbatekoa, 13.000.000 pezeta. MAPAk ondoko kontusailean egindako dirusarrera handiagoekin finantzatu da: kontusaila, 70130-7903; proiektua, 10000; izena, "FEOGA-Gtik jasotako transferentziak. Kontrol eta prebentzio neurriak"; lerroa, 38455-1; zenbatekoa: lehengo bera.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara, eta Aipatu departamentuan den kontuhartzaitza delegatura.

Iruñean, 1998ko irailaren 24an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"507/1998 EBAZPENA, irailaren 24koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana. Haren bidez, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketak baimentzen dira.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kanpo Ekintzaren Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kanpo Ekintzaren Zerbitzuak kreditu-gehikuntza eskatu du gastuen aurrekontuko ondoko kontusailean: kontusaila, "Enplegua eta Adapt Ekimenetako proiektuen ekintzak bukatzea; 94-97 programaziorako hitzartutakoak (ESI)"; lerroa, 07790-2; zenbatekoa, 524.843 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura finantzatu da: kontusaila, "Interreg II Ekimena"; lerroa, 07830-5.

1998ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikuluan 2. puntuko c) idazatian eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 45. artikuluan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998rako indarra duen gastuen aurrekontuan, kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: kontusaila, 11610-4812-1341; proiektua, 16003; lerroa, 07790-2; izena, "Enplegua eta Adapt Ekimenetako proiektuen ekintzak bukatzea; 94-97 programaziorako hitzartutakoak

(ESI)"; zenbatekoa, 524.843 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura finantzatu da: kontusaila, 11610-7810-2-1341; proiektua, 16003; lerroa, 07830-5; izena, "Interreg II Ekimena".

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Kanpo Ekintzaren Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuko Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1998ko irailaren 24an

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"515/1998 EBAZPENA, irailaren 30ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana. Haren bitartez, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketak baimentzen da.

Ikusirik Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Tributu Zerbitzuak egindako eskaria. Hartan, kreditua gehitzeko eskatzen da ondoko kontusailean: kontusaila, "Tributu arloko gorabeherek sorturiko gastuak"; lerroa, 08561-1; zenbatekoa, 8.000.000 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura ordainduko da: kontusaila, "Interreg II Ekimena"; lerroa, 07830-5.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 45. artikuluan eta 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 4. artikuluan 1. puntuan ezarritakoaren indarrez, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren urriaren 7ko 233/1996 Foru Aginduak eskuordetu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998rako indarra duen gastuen aurrekontuan, kreditu-gehikuntza egitea. Hain zuzen ere ondoko kontusailean: kontusaila, 12250-2263-2-6131; proiektua, 22002; lerroa, 08561-1; izena, "Tributu arloko gorabeherek sorturiko gastuak"; zenbatekoa, 8.000.000 pezeta. Ondoko kontusailaren kargura finantzatu da: 11610-7810-1341; proiektua, 16003; lerroa, 07830-5; izena, "Interreg II Ekimena".

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Tributu Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu ataletara eta aipatu Departamentuko Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1998ko irailaren 30ean

Ekonomi zuzendari nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

“520/1998 EBAZPENA, irailaren 9koa, Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiak emana.

“Turismo sektorea sustatzea” programaren helburuak betetzeko, beharrezkoa da zenbait gastu hitzartzea hainbat sustapen ekintzetarako, bai eta funtzionamenduaren ohiko gastuak ordaintzeko ere; izan ere, aurrekontuan ez baitago diru aski horretarako.

Ikusirik 1998rako Aurrekontuko hainbat kontusailetan beste kontusail batetik egindako transferentzia bidez kreditu-gehikuntza egiteko beharra, eta, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 46.2 artikulua araber, Kontseilariak, beren Departamentuen eskumen-eremuaren baitan, artikulu horretan zehazten diren kreditu-transferentziak baimendu ditzaketela kontutan edukiz.

Horren indarrez, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren abenduaren 2ko Foru Aginduaren bitartez eskuordetu zaizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1.- 1998rako aurrekontuan ondoko kontabilitate-idazpena sortaraziko duen kreditu-transferentzia egitea:

Abonamenduak

82210-2269-7514 Azoketara joatea 7.000.000
Lerroa, 30690-1
Proiektua, 50001

Karguak

82210-7709-7512 Ekimen 7.000.000
Lerroa, 30870-0 pribaturako
Proiektua, 50001 FEDER programak

Ebazpen honen aurka, errekurtsio aurrunta aurkez daiteke Nafarroako Gobernuan, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

Ebazpen hau Kontabilitate Zentroari jakinaraziko zaio, behar diren ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusia:
Angel Sola Jimeno”

“566/1998 EBAZPENA, irailaren 16koa, Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusiak emana.

“Turismo sektorea sustatzea” programaren helburuak betetzeko, beharrezkoa da zenbait gastu hitzartzea hainbat sustapen ekintzetarako, bai eta funtzionamenduaren ohiko gastuak ordaintzeko ere; izan ere, aurrekontuan ez baitago diru aski horretarako.

Ikusirik 1998rako Aurrekontuko hainbat kontusailetan beste kontusail batetik egindako transferentzia bidez kreditu-gehikuntza egiteko beharra, eta, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 46.2 artikulua araber, Kontseilariak, beren Departamentuen eskumen-eremuaren baitan, artikulu horretan zehazten diren kreditu-transferentziak baimendu ditzaketela kontutan edukiz.

Horren indarrez, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren 1996ko abenduaren 2ko Foru Aginduaren bitartez eskuordetu zaizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1.- 1998rako aurrekontuan ondoko kontabilitate-idazpena sortaraziko duen kreditu-transferentzia egitea:

Kargua

82210-7709-7512 Ekimen pribaturako 5.000.000
Lerroa, 30870-0 transferentziak
Proiektua, 50001 FEDER programak

Abonamendua

82210-2212-7512 Azpiegitura propioen 2.500.000
Lerroa, 30650-2 funtzionamendu
Proiektua, 50001 gastuak

Abonamendua

82210-2266-7514 Turismoa sustatzeko 2.500.000
Lerroa, 30680-4 jardunaldi eta beste-
Proiektua, 50001 lako jarduketan
ondoriozko gastuak

Ebazpen honen aurka, errekurtsio aurrunta aurkez daiteke Nafarroako Gobernuan, jakinarazpena egin eta hilabeteko epean.

Ebazpen hau Kontabilitate Zentroari jakinaraziko zaio, behar diren ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Merkataritza eta Turismo zuzendari nagusia:
Angel Sola Jimeno”

“594/1998 EBAZPENA, irailaren 23koa, Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nagusiak emana.

“Turismo Sektorea sustatzea” programaren helburuak betetzeko, beharrezkoa da gastu-hitzarmen bat egitea sustapenaren zenbait ekintzetarako eta funtzionamenduak sortzen dituen ohiko gastuei aurre egiteko. Horretarako diru aski ez dago aurrekontuan.

Ikusirik 1998rako Aurrekontuko zenbait kontusailetan kreditu-gehikuntza egin behar dela, horre-

tarako beste kontusail batetik transferentzia eginenez, eta kontuan hartuta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen 46.2 artikulua- ren indarrez Kontseilariak, beren departamentue- tan, artikulua horretan zehazten diren kreditu- trdantsferentziak baimen ditzaketela.

Horrenbestez, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren 1996ko abenduaren 2ko Foru Aginduaren bitartez eskuordetu zizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT

1.- 1998rako Aurrekontuan ondoko kontabilitate idazpena sortaraziko duen kreditu-transferentzia egitea:

Kargua

82210-7709-7512	“Ekimen pribaturako transferentziak”	2.600.000
Línea 30860-0		
Proyecto 50001		

Abonamendua

82210-6080-7512	“Inbertsioak material turistikoan eta sustapen materialean”	2.600.000
Línea 30810-6		
Proyecto 50001		

Ebazpen honen aurka ohiko errekurtsua jar daiteke Nafarroako Gobernuan, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

Ebazpen hau Kontabilitate Zentroari eta Nafarroako Parlamentuari jakinaraziko zaie, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 1998ko irailaren 23an

Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nagusia:
Angel Sola Jimeno

“**59/1998 FORU AGINDUA**, urriaren 20koa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak emana. Haren, bidez kreditu-transferentzia bat baimentzen da “Inbertsioei buruzko azterlanak eta plangintza” izeneko 10 Programako kontusailen artean.

Ikusirik Afera Ekonomikoen eta Araubide Administratiboaren Atalak egin duen txostena; izan ere, haren bidez, transferentzia eskatzen da 1998rako Gastuen Aurrekontuko programa bereko kontusailen artean, Nafarroako Foru Ogasunari buruzko 8/1988 Foru Legearen 46. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Foru Komunitateko Gobernu eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeak eskuordetu zizkidan esku-

rantzak erabiliz, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak

AGINDU DUT:

1go. 1998rako gastuen aurrekontuan, kreditu-transferentzia hau egitea “Inbertsioei buruzko azterlanak eta plangintza” 10 Programako kontusailen artean.

Kentzeko kontusaila:	Zenbatekoa
91120-6020-3135	Inbertsioa ez-gaituentzako
lerroa 99002-0	zentro berekietan,
	9.000.000

Gehitzeko kontusaila:	Zenbatekoa
91120-7600-3132	Plan Gerontologikoko
lerroa 317970-1	inbertsioak. Transferentziak
	toki entitateetara
	9.000.000

2gn. Foru Agindu hau igortzea Nafarroako Parlamentura eta Afera Ekonomikoen eta Araubide Administratiboaren Atalera, behar diren ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko urriaren 20an.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda”

“Nafarroako Gobernuak, 1998ko irailaren 28an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Uztailaren 171/1998 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Gobernuak adierazi zuen Nabaskoze-ko lurzati antolamendua interes publikokoa eta presakoa zela.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Nekazaritza Egituren Zerbkitzuak Oibarko ureztaketa sistema tradizionala berritzeko proiektuko obrak egitea aurreikusitako du.

Proiektu honetarako inbertsioa, Administrazioak ordaindu beharrekoa, hauxe izanen da: 25.000.000 pezeta 1998rako eta 123.740.577 pezeta 1999rako; guztira, 148.740.577 pezeta egiten dute.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/88 Foru Legeko 41. artikulua eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legeko 31.3 artikuluari jarraituz, Nafarroako Gobernuak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak proposatuta

ERABAKI DUT

1go. Aprobare el “Oibarko Lurzati Antolamenduko eskualdean ureztaketa sistema tradizionala

berritzeko proiektua". Aurrekontua, guztira, 163.067.074 pezetakoa izanen da.

2gn. Urte anitzeko gastu bat egin dadin baimentzea, "Oibarko Lurzati Antolamenduko eskualdean ureztaketa sistema tradizionala berritzeko proiektua"n aurreikusitako obrak egiteko. Administrazioak ordaindu beharreko kopurua, berriz, 148.740.577 pezeta izanen da.

3gn. Baimen honetako zenbatekoak 148.740.577 pezeta egiten du, eta ondoko kontusailari egotziko zaio: izena, "Erregadio berriak egiteko edo zirenak hobetzeko dirulaguntzak" 72230-7400-5321; lerroa, 97084-4. Honela banatuko da egozketa hori:

25.000.000 de pezeta ondoko kontusailaren kargura: kontusaila, 72230-7400-5321 "Subvención para nuevos regadíos o mejora de los existentes"; lerroa, 97084-4; 1998rako aurrekontua.

123.740.577 pezeta 1999rako gastuen aurrekontuaren kargura.

4gn. Baimena ematea Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariariobretarako kontratua egin dezan.

5gn. Erabaki hau igortzea Ekonomi eta Ogasun Departamentura eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentura, Nafarroako Parlamentura eta Nekazaritza Egituren Zerbitzura."

KONTUEN GANBARAREN TXOSTENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 6an harturiko Erabakiaren bidez, aurrekontuetan eginiko hainbat aldaketaren legezkotasunari buruz txostena eskatzea onartu zuen. Nafarroako Gobernuaren Erabakiak, bere Kontseilarien Foru Aginduk eta zenbait Departamentu Zuzendari Nagusien Ebazpenek eragin zituzten aldaketa horiek, eta aurtengo irailean igorri zituzten Parlamentura. Horiei buruz, Kontuen Ganbarak txosten hau eman du:

Aurrekontu-aldaketak zenbait kreditu-gehikuntza, kreditu-transferentzia, kreditu-sorkuntza, kreditu-gainerapen edo kreditu-birjarpen dira, indarra duen legediarekin bat datozenak, kasu horretarako eskumena duen erakundeak egin baititu. Bestalde, aldaketa horiek bat datoz Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/88 Foru Legeko 45.etik 53.era artikuluetan ezarritakoarekin, bai eta 1998 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 1997ko abenduko 21/1997 Foru Legearen 3. eta 4. artikuluetan ere.

Iruñean, 1998ko abenduaren 24an.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko maiatzaren 31n egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onestea. Haien hautapena ondoren aipatzen diren oinarrien arabera egingen da.

Bigarrena. Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

1. oinarria.- Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bitartez, txanda irekian, betetzea.

1.2. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiak Biltzarreko nomina eta plantilako funtzionarioa izanen da, eta indarra duten xedapenek Nafarroako Parlamentuko funtzionarioentzat ezarritako eskubide eta betebeharrak izanen ditu.

1.3. Lanpostua egungo lanpostuen sailkapeneko B mailari dagozkion lansariez hornituko da, eta Nafarroako Parlamentuko indarreko plantila organikoak esleitutako ordainketa osagarriak ere gehituko zaizkio.

1.4. Hautapen probak gairitu eta deialdi honetako xede den lanposturako izendatu ondoren, Nafarroako Parlamentuan sartu eta funtzionario izaera hartuko duen izangaiak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean afiliatuko da, eta alta emanen zaio, aipatu araubideak aurreikusitakoaren babesean.

Baldin eta deialdi honetako xede den lanposturako izendatzen den funtzionarioa eskubide pasiboan eta osasun eta gizarte laguntzaren araubidean

afiliaturik badago -alegia, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioen zerbitzuko langileen Estatutuak eta gainerako xedapen osagarriak aipatzen duten hartan-, aukeran izanen du bertan segitzea edo Gizarte Segurantzaren afiliatzea.

1.5. Parlamentuko organo eskudunek ezarriko dute lanaldiaren araubidea; edonola ere, lanaldia alda daiteke, zerbitzu-arrazoia direla-eta.

2. oinarria.- Izangaien betebeharrak.

2.1. Honako baldintza hauek bete beharko dituzte izangaiak oposizio honetarako onartuak izateko, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean:

a) Nazionalitate espainiarra izatea.

b) Adinez nagusia izatea.

c) Informatika-diplomatu, ingeniari edo arkitekto tekniko titulua izatea edo ofizialki baliokidetzat jotako tituluren bat izatea, edo aipatu tituluetako bat eskuratzeko moduan egotea eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

d) Dagozkion eginkizunak betetzeko behar den gaitasun fisiko zein psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoak betetzeko desgaitu edo gabetua ez egotea, eta administrazio publikoren baten zerbitzutik berezia ez izatea.

2.2. Deialdi honetako zazpigarren oinarriak ezarri epe eta moduan egiaztatu beharko ditu aurreko baldintza horiek lanpostua ateratzen duen izangai onartuak, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean betetzen dituela ulertuko da; izan ere, oposizioan zehar eta izendapenera arte bete beharko dituzte baldintzok.

3. oinarria.- Eskabideak.

3.1. Oposizio-lehiaketan parte hartzeko eskabideak Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorrean (Arrieta, 12, 31002-Iruña) aurkeztu beharko dira, hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatuta. Eskabide horiek deialdi honetako I. eranskinean agertzen den ereduaren arabera izan beharko dira. Eskabide horietan izangaiak adierazi beharko dute ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztela, beti ere eskabideak aurkezteko epea bukatzen den eguna kontuan hartuta.

Alegatzen dituzten merezimenduen zerrenda ordenatua erantsi beharko diote izangaiek eskabideari, eta merezimenduak II. eranskineko baremoren arabera sailkatu. Halaber, merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak ere erantsi beharko dira, behar bezala kautotuak.

3.2. Minusbaliatuek ariketak egiteko denbora eta baliabide aldetik behar ditzaketen egokitzapenak eskatu ahalko dituzte, horren beharrik izanez gero. Kasu horretan, eskabidean adierazi beharko dute zein ezintasun duten eta zein egokitzapen eskatzen duten.

3.3. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

4. oinarria.- Izangaiei onarpena. Erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila aginduko.

4.2. Izangai baztertuek egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka, eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihararumetik hasita hamar egun baliodunen epearen barruan.

4.3. Ezarritako epearen barruan eskabiderik aurkeztu ez bada, Parlamentuko Mahaiak deialdia bete gabe gelditu dela adierazteko ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko Lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko ebazpena emanen du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadila aginduko.

5. oinarria.- Epaimahaia.

5.1. Hona hemen Epaimahaia osatuko dutenak:

Mahaiburua: Nafarroako Parlamentuko Mahaiak kide bat.

Ordezkoa: Idem.

Mahaikidea: Nafarroako Gobernuak sistema informatikoetako teknikari bat.

Ordezkoa: Idem.

Mahaikidea: Nafarroako Unibertsitate Publikoak sistema informatikoetako teknikari bat.

Ordezkoa: Idem.

Mahaikidea: Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeko ordezkari bat, aipatu Batzordeak izendatua.

Ordezkoa: Idem.

Mahaikidea: Nafarroako Parlamentuko funtzionario bat, epaimahaiko idazkari izanen dena.

Ordezkoa: Idem.

Epaimahaia hautapen probak hasi baino lehen eratu beharko da.

5.2. Epaimahaiko kideek ezin izanen dute parte hartu, eta halaxe jakinaraziko diote Mahaia-ri, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 28. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatzen direnean.

5.3. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo absolutua bildu gabe. Organo kolegiatuaren eraketak balioa izateko, mahaiburua eta idazkaria, edo horien ordezkoiak, eta kideen erdiak bederen elkartu beharko dira.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen arazo guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistei dei egin ahalko die proba guztietarako edo batzuetarako. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoan aritzera mugatuko dira, eta haietan soilik emanen diote laguntza Epaimahaiari.

5.6. Ariketak baloratzeko erabateko adostasunik ez badago, Epaimahaiak kide guztien kalifikazio partzialak batuko ditu eta gero kide kopuruarekin zatituko. Emandako puntuazioen artean ehuneko berrogei edo gehiagoko aldea badago, aintzat hartuta epaimahaikide bakoitzak eman dezakeen gehienezko puntuazioa, puntuaziorik altuena eta baxuena automatikoki baztertuko dira, eta gainerako kalifikazioen batez besteko puntuazioa aterako da.

5.7. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, Epaimahaiak ebatziko ditu.

6. oinarria.- Oposizio-lehiaketaren garapena.

6.1. Oposizio-lehiaketa bi alditan egingen da: lehenbizi lehiaketaldia, eta, gero, oposizioaldia, oinarri hauetan adierazitako moduan.

6.2. Oposizio-lehiaketa 1999ko urrian hasiko da. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko

zerrenda onesten duen ebazpenean bertan zehaztuko dira probak hasiko diren tokia, data eta ordua. Gero, Epaimahaiak garaiz jakinaraziko ditu gainerako probak egiteko iragarkiak, arauzko moduan.

6.3. Lehiaketaldia.

6.3.1. Alegatutako merezimenduak deialdi honen II. eranskinean azaldu baremoari jarraikiz puntuatuko dira.

6.3.2. Epaimahaiak edozein unetan eska ditzake lehiatzaileek alegatutako merezimenduei buruzko azalpenak eta datu osagarriak.

Epaimahaiak arrazoiz baloratuko ditu izangai bakoitzaren merezimenduak, baremoko atal bakoitzaren arabera; hala ere, alegatu gabeko edo agiri bidez egiaztatu gabeko merezimendurik inoiz ere ezin izanen du zenbatu, ez eta atal bakoitzaren gehieneko puntuazioa baino gehiago eman ere.

6.3.3. Lehiaketaldia bukatu ondoren eta oposizioaldia hasi baino lehen, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean jarriko dira aldi horretan izangaiak lortu dituzten puntuazioak. Izangaiak oposizioaldiko probetan ateratako puntuazioari gehituko zaio lehiaketaldian ateratako puntuazioa. Horrela aterako da oposizio-lehiaketaren guztirako puntuazioa.

6.4. Oposizioaldia.

6.4.1. Oposizioaldiak ondoko ariketak izanen ditu:

a) Lehenbiziko ariketa.

Lehen zatia: Ingelesezko testu bat gaztelertzea, hogeitamar minututan gehienez ere.

Bigarren zatia: praktikoa. Programako III., IV. eta V. eranskinei buruzkoa. Epaimahaiak proposatutako kuestio eta kasuak garatu eta ebaztea, lau orduko epean, gehienez ere.

b) Bigarren ariketa: praktikoa. Programako V. eranskinari buruzkoa. Epaimahaiak proposatutako kuestio eta kasuak garatu eta ebaztea.

Ariketa hasi baino lehen ezarriko du epaimahaiak ariketaren gehienezko iraupena; hala ere, iraupena ezin izanen da lau ordu baino gehiago izan.

c) Hirugarren ariketa: teorikoa. Programaren VI. eranskinetik zozketaz ateratako bi gairen artean aukeratutako bat idatziz azaldu beharko da, ordu betez gehienez ere.

6.4.2. Oposizioko ariketen balorazioa 100 puntu izanen da, gehienez ere. Puntuak honela banatuko dira, oposizioko proben arabera:

Lehen ariketa:

1go. zatia: 5 puntu, gehienez ere. Zero puntu ateratzen duena kanpoan geratuko da.

2gn. zatia: 45 puntu, gehienez ere.

Bigarren ariketa: 45 puntu, gehienez ere.

Hirugarren ariketa: 5 puntu, gehienez ere.

6.4.3. Oposizioko lehen ariketaren bigarren zatia, bigarren ariketa eta hirugarren ariketa baztertzaile izanen dira; alegia, ariketa horietako bakoitzak duen gehienezko puntuazioaren gutxienez erdira iristen ez diren oposiziogileak kanpoan geratuko dira.

6.4.4. Ariketa bakoitza bukatutakoan, epaimahaiak jendaurrean jarriko du, Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean jarri ere, probak gainditu dituzten izangaien zerrenda haien kalifikazioekin, eta, halaber, oposizioko hurrengo ariketa zein toki, egun eta ordutan egingen den, 48 ordu lehenagotik bederen.

6.4.5. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingen da. Izangaiak Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak ordezkotzat jotako beste dokumenturen bat aldean dutela agertu beharko dute, eta agertzen ez diren izangaiak oposiziotik baztertuta geratuko dira.

6.4.6. Hautapen probak egiteko, denbora eta baliabide aldeko egokitzapenak jarriko dira hala eskatzen duten minusbaliatuentzat, eskabidean azaldukoaren arabera.

7. oinarria.- Probak gainditzten dituztenen zerrenda eta agirien aurkezpena.

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa amaiturik, epaimahaiak zerrenda bat jarriko du Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean; gainditu dituztenen zerrenda, hain zuzen ere. Izangai bakoitzak lortu dituen kalifikazioak batuta ateratako puntuazioaren arabera jarriko da aipatu zerrenda. Halaber, Parlamentuko Mahaiari igorriko dio izendapen proposamena, puntuaziorik altuena lortu duen izangaiaren alde.

7.2. Izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturalen barrenean, proposatutako izangaiak ondoko dokumentuak aurkeztu beharko ditu Bilzarreko Erregistro Orokorrean:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna erakusten dituen agiri baliokidea.

b) Deialdiaren bigarren oinarrian eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura esku-ratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina-rena, edo informatika-, ingeniari- edo arkitektu-ra-lizentziaturetako baten lehenengo hiru ikasturteak osorik gainditu izanaren ziurtagiria.

c) Zinpeko aitortpena, eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua edo gabetua ez dagoela, eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik ez dela berezia izan dioena.

d) Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak luzatutako txostena, karguari dagozkion eginkizunak betetzea galarazten duen eritasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez duela egiaztatzen duena.

Minusbaliaren bat alegatu duten izangaiek, gainera, hura deialdiaren xedeko lanpostuarekin bateragarria dela dioen frogagiria, balorazio eta orientazio talde eskudunek luzatua.

e) Nafarroako Foru Eraentza begiratu, Konstituzioari eta legeei men egin eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela zin egin edo hitz ematea.

7.3. Aipatu epearen barrenean, eta behar bezala arazoitutako ezinbesteko kasuak salbu, agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta haien jarduketa guztiak deusezturik geratuko dira, eskabidearen faltsukeriagatik izan dezaketen erantzukizuna galarazi gabe.

7.4. Aurreko idazatian aurreikusitakoa gertatuz gero, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baja bete beharko du, probak gainditu dituztenen zerrendan -7.1 idazatian aipatutakoan, hain zuzen ere- hurrengo den izangaiarekin bete ere, eta azken horrekin ere aurreko idazatietan adierazitako moduan jokatu da.

8. oinarria.- Izendapena eta lanpostua hartzea.

8.1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, ebazpenaren bitartez, Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatuko du aurreko oinarrietan ezarritakoa betetzen duen izangaia, sistema informatikoen erdi mailako teknikari lanpostu baterako izendatu ere.

8.2. Izendapen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

8.3. Izendapena jakinarazi eta ondoko hilabetean hartu beharko du lanpostuaren jabetza izendatutako izangaiak. Aipatu epean jabetza hartzen

ez badu, Nafarroako Parlamentuko funtzionario izaera hartzeko eskubide guztiak galduko ditu, aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu. Hala bada, 7.4 idazatian ezarritakoari jarraituko zaio.

9. oinarria.- Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka, bere oinarrien aurka, izendapen-erabakiaren aurka eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta har ditzakeen gainerako erabakien aurka, ondorengo errekursoetako bat erabil daiteke:

a) Birjarpen-errekurtsoa, Biltzarreko Mahaiaren aurrean, hilabeteko epean, aurkatu nahi den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, bi hilabeteko epean, aurkatu nahi den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Parlamentuko Lehendakariak edo epaimahaiak deialdi hau aplikatzeko ematen dituzten gainerako egintzak direla-eta, goradei-errekurtsoa paratu ahalko da Nafarroako Parlamentuaren Mahaiaren aurrean, hilabeteko epean, aurkatu nahi den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

I. ERANSKINA Eskabide eredia

..... J/A, adinez nagusi,
..... Nortasun Agiri Nazionaleko zenbakia duena, 19....(e)ko
.....(a)ren(e)an jaioa,
.....(e)koa, helbidea,
..... kalean, ... zk.an, pisuan,
..... posta kodea, eta telefono zk.a dituen.

HAUXE ADIERAZTEN DU:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako erdi mailako teknikari lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian parte hartu nahi duela; izan ere, 1999ko maiatzaren 31n onetsi zuen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hori.

Karguan aritzea galarazten dion eritasun edo akats fisiko nahiz psikikorik ez duela.

Ez duela indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Ez dela diziplina espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik bereizia izan, ezta desgaitua ere eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdiaren bigarren oinarrian adierazitako titulazioaren jabe dela.

Eskabideak aurkezteko emandako epea amaitzen den egunean, eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

Baduela/ez duela minusbaliotasunik. Eskabideari erantzen zaion dokumentuan egiaztatzen duela hori, hautaprobak denbora eta baliabideen aldetik egokitzea eskatzeaz batera.

Azaldutakoaren ondorioz,

HAUXE ESKATZEN DU: Eskabide honetan aipatzen den deialdirako onartua izatea. Deialdian eskatzen diren dokumentuak eta merezimenduen egiaztagiria ere erantzen zaizkio eskabideari.

Iruñean, 199...(e)ko (a)ren (e)an

II. ERANSKINA MEREZIMENDUEN BAREMOA

1go. atala. Emandako zerbitzuak.

Administrazio Publikoan eta haren erakunde autonomoetan emandakoak, espezialitate berean eta maila berean edo altuagoan: urteko 2 puntu.

Atal honetan 10 puntu atera daitezke, gehiezez ere.

2gn. atala. Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

a) Eskatzen den espezialitatearekin zerikusia duten master edo unibertsitate-aditu ikasketak. Edukiaren eta iraupenaren arabera baloratuko dira. Hiru puntu, gehiezez ere.

b) Iraupena osotara harturik, 120 ordu baino gehiagoko ikastaroak, edo ikasturte akademikoa, eskatzen den espezialitatearekin zerikusia baldin badute, eta irakaskuntza-kreditazioa duten zentroak antolatuta baldin badaude. Hiru puntu, gehiezez ere.

c) Ponentziak aurkeztea, ikerlanak, lanak aldizkari espezializatuetan argitaratzea, eta abar, eskatzen den espezialitatearekin zerikusia baldin badute. Lau puntu, gehiezez ere.

Atal honetan 10 puntu atera daitezke, gehiezez ere.

3gn. atala. Lanbide-curriculum.

a) Teknikari informatiko aritu izana alor pribatuan: 8 puntu, gehiezez ere.

b) Beste batzuk. Bete beharreko lanpostuarekin zerikusia duten jarduerak: 2 puntu, gehiezez ere.

Atal honetan 10 puntu atera daitezke, gehiezez ere.

Baremoa aplikatzeko arauak:

a) Izangaiek merezimenduak alegatu ez ezik, ordenatu ere eginen dituzte, eranskin honetan agertzen den puntuazio-eskemaren arabera sailkatuz.

b) Ondoren agertzen den moduan justifikatuko dira merezimenduak, edo, bestela, Zuzenbideak onetsitako edozein frogabideren bitartez.

– Titulu akademikoak eta ikasketak: jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua.

– Administrazioan egindako lanak: administrazio-ebazpenaren edo ziurtagiri ofizialaren kopia kautoa edo fotokopia konpultsatua.

– Merezimendu bereziak eta deitutako lanpostuaren eginkizun berariazkoen antzeko zerbitzuak eman edo zereginetan aritu izana, hala administrazio publikoan nola enpresa pribatuan: egoki iriztitako frogabideak; edonola ere, gai bakoitzari buruzko jakite maila adierazi beharko da, eta merezimenduztat aurkezten diren lanak egiaztatuz.

c) Baremoa aplikatzeko behar den informazio guztia eduki beharko dute merezimenduak egiaztatzeke dokumentuek. Ez da justifikatu gabeko merezimendurik zenbatuko.

III. ERANSKINA Informatika orokorra

1. gaia.- Sistema informatiko baten osagarri nagusiak. Arkitektura. Kanalak: funtzionamenduetak eta -moduak.

2. gaia.- Periferikoak. Sarrera-irteerako unitateak edo gailuak. Biltegitratze masiborako gailuak.

3. gaia.- Ordenagailu pertsonalak. Arkitektura. Sistema eragileak.

4. gaia.- MS/DOS sistema eragilea.

5. gaia.- Testu-prozesadoreak. Kalkulu-orriak. Pakete integratuak.

6. gaia.- Mezularitza eta posta elektronikoa. Workflow.

7. gaia.- Dokumentuak kudeatzeko sistema.

8. gaia.- Datu-truke elektronikoa (EDI)

9. gaia.- Datu-baseak. Ereduak. Datu-baseak kudeatzeko sistemek eutsitako funtzioak: integritatea, segurtasuna eta erredundantzien kontrola.

10. gaia.- Datu-base erlazionalak. Normalizazio prozesua. SQL lengoia.

11. gaia.- Datu-baseak. Segurtasuna: baime-nak, pribilegioak eta integritate-murritzapenak.

12. gaia.- Analisi egituratua. Fluxu-diagramak. Datuen modelizazioa.

13. gaia.- Pakete integratua: modulu nagusiak.

14. gaia.- Autoedizioa: funtzio nagusiak. Testuak, grafikoak eta irudiak sartzea.

15. gaia.- Karaktere-ezagutzea: letra-tipoak ikastea. Irakurketa-motak. Testu-zuzenketa.

16. gaia.- Irudiaren tratamendua: eskaner optikoak. Disko optikoak. Konpresio-logika eta irudiak artxibatzea.

17. gaia.- Grafikoen programak: ezaugarri nagusiak.

18. gaia.- Aurkezpenetarako programak: ezaugarri nagusiak.

19. gaia.- Informazio-euskarriak: euskarri magnetikoak, CD-ROM, bestelako euskarriak.

20. gaia.- Erabiltzaileen interfaze grafikoak (GUI). Motak. Ezaugarriak. Programazioa. Datuen truke dinamikoa. Objektuen kudeaketa.

21. gaia.- Objektuetara bideratutako programazioa. Elementuak. Ezaugarriak. Abantailak. Lengoiak.

22. gaia.- Objektuak. Objektu baten egitura. Kapsulatzea eta ezkutatzea. Objektuen arteko antolamendua. Propietateak. Metodoak. Estekadura dinamikoa.

23. gaia.- Aplikazioak garatzeko metodologia. Bizi-zikloa. Prototipoak. CASE. CASE erreminta motak.

IV. ERANSKINA

PC sistemak, sareak eta komunikazioak.

1. gaia.- Macintosh ingurunea.

2. gaia.- Memori kudeaketa. Biltegitratzeari buruzko kontzeptuak. Memoria erreala. Memoria birtuala.

3. gaia.- Windows ingurunea. Ezaugarriak. Programen administratzailea. Fitxategien administratzailea. Inprimatze-administratzailea. Kontrol panela. Memori kudeaketa. Aplikazioen arteko datu-trukea.

4. gaia.- Windows aplikazioak integratzea. Datuen truke dinamikoa (DDE). Object Linking and Embedding (OLE). Estekadura edo lotura dinamikoko liburutegiak (DLL).

5. gaia.- Windowsen optimizazioa. Sistema hasieratzeko artxiboak. Errendimendua.

6. gaia.- Windows 95.

7. gaia.- Windows NT 4.

8. gaia.- Sare lokalak: sare motak. Teknologia. Topologiak. Estandarrak. Instalazio-metodologia. Plangintza eta ebaluazio-metodologia.

9. gaia.- Token Ring eta Ethernet sare lokalak eta Novell sarearen softwarea. Kontzeptu nagusiak.

10. gaia.- Telekomunikazio-elementuak: transmisio bide eta teknikak. Nazioarteko arau eta estandarrak. Sare publiko eta pribatuak. SNA eta X25 sareak. OSI modeloak. Balio erantsiko sareak.

11. gaia.- Zerbitzu integratuen sare digitala. Banda estua. Banda zabala.

12. gaia.- ATM sareak. Protokoloen arkitektura. Estekadura logikoak. ATM Cells. Egokitze maila. Trafikoaren kontrola eta kongestioa.

13. gaia.- Internet sarea: bilakaera eta ezaugarriak. Eusteko sareak. Zerbitzu-hornitzaileak.

14. gaia.- Interneten oinarrituriko zerbitzuak: posta, artxiboen transferentzia, hipertextu formatu argitalpenak, eztabaida- eta berri-taldeak, sareko elkarrizketak, informazio egituratua bilatu eta eskuratzea.

15. gaia.- Interneten erabilitako lengoiak: HTML, SCRIPT lengoiak, Java, ASP, laugarren belaunaldiko lengoiak.

16. gaia.- Interneteko aplikazio tipikoak: Internet, intranet eta extranet. Baterakidetasunak eta aldeak.

17. gaia.- Interneteko segurtasun-arazo tipikoak: intrusioak, zerbitzuetara baimenik gabe sartzea, softwarea jasotzea, konfidentzialtasuna, zerbitzuaren akatsak. Hartu beharreko neurri bereziak.

V. ERANSKINA

Tresna edo erreminta ofimatiko bereziak

1. gaia.- Windowserako Word testu-prozesadorea.

2. gaia.- Windowserako Microsoft Excel kalkulu-orria.

3. gaia.- Acces datu-basea.

4. gaia.- Power Point aurkezpen-programa.

VI. ERANSKINA

1. gaia.- Espainiako 1978ko Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Era-entza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko testua: izaera eta esanahia. Egitura eta sistematika. Aurrekariak. Elaborazioa. Edukia.

2. gaia.- Nafarroako foru erakundeak. Nafarroako Parlamentua edo Gorteak. Historia, osaketa eta eginkizunak. Erakunde-autonomia: Parlamentuaren aurrekontuak, erregelamendua eta barne-gobernua.

3. gaia.- Foru Diputazioa edo Nafarroako Gobernua. Eginkizunak. Osaketa. Nafarroako Gobernuko Lehendakaria. Haren hautaketa. Nafarroako Parlamentuaren aurreko erantzukizun politikoa.

4. gaia.- Gobernuaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren antolaketa eta egitura.

5. gaia.- Foru parlamentarioak; eskubideak eta betebeharrak. Parlamentuko taldeak.

6. gaia.- Parlamentuaren antolaketa: Lehendakaria, Mahaia eta Bozeramaileen Batzarra. Batzordeak, Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorra.

7. gaia.- Parlamentuaren funtzionamendua: bilkurak, gai-zerrenda, botazioak, epeak zenbatzea eta dokumentuak aurkeztea.

8. gaia.- Ohiko legegintza-prozedura. Legegintza-prozedura bereziak.

9. gaia.- Jabeldurak eta galderak. Mozioak.

10. gaia.- Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutua. Zerbitzuen egitura. Legelari nagusia. Langileen erregulazioa.

11. gaia.- Nafarroako Kontuen Ganbara: izaeraren, eginkizunen, antolaketaren eta funtzionamenduaren azterketa laburra.

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1998ko irailean egindako bilerak**MAHAIA**

16 eta 30ean.

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

8, 15, 22 eta 29an.

OSOKO BILKURA

16an:

– Aintzat hartzea, egoki bada, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztutakoa.

– Nafarroako Ubideko obrak burutu eta finantziatzeko lankidetzeta-hitzarmena, Ingurugiro Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artekoa, eztabaidatu eta bozkatzea.

– Ezpeleta Martínez jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Osasun Sistemaren Estatutupeko Langileen Estatutu Markoari buruzko Lege proiektuaren igorpena atzera dezan.

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egungo mendi eskualdeak 2. Helburu berrian sartzea defenda dezan.

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Oronozko etxebizitzak Barne Ministerioari lagatzeko espedientea geldiaraz dezan.

– Bi mozio hauek batera eztabaidatu eta bozkatzea. «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da FMko irratien lizentziak esleitzeko prozesua geldiaraz dezan, Parlamentuak Kontuen Ganbararen txostena izan arte. Fermín Cíaurriz Gómez

Foru Parlamentari jaunak eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkezturiko mozio. Mozio horren bidez, Iruñerriko bi FM lizentzien esleipena etetea eskatzen da.

– Romeo Lizarraga jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Hezkuntza eta Kultura Batzordeak "D" ereduari buruz 98-6-26an onetsiriko neurriak har ditzan.

– "José M^a Iribarren" ikastetxean D ereduko gela bat zabaltzeaz Parlamentuak hartutako erabakia betetzeko neurriari buruzko galdera, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak egina.

**NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO
GIZARTE ZERBITZUETAKO, HEZKUNTZAKO
ETA OSASUNeko ITUNEN SISTEMA
AZTERTZEKO BATZORDE BEREZIA**

8an:

– Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuetako, hezkuntzako eta osasuneko itunen sistema aztertzeiko Batzorde Berezia eratzea. Batzorde hau Mahaiak ekainaren 23an hartutako erabakiaren bidez sortu zen.

– Lehendakaria hautatzea.

**LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA
BARNEKOA BATZORDEA**

9 eta 29an:

– Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeko Ponentzia, Nafarroako Kontseilu Aholku-emileari buruzko Foru Lege proposamena eta Nafarroako Kontseilua arautzen duen Foru Lege proiektua aztertzeiko eratutakoa.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

11n:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskatuta, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren

agerraldia, irrati-emisoreen esleipenerako lehiaketaren emaitzen berri eman dezan.

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskatuta, Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusiaren agerraldia, euskaraz soilik arituko den irratia izateko eskari publikoaren berri eman dezan.

OSASUN BATZORDEA

15ean:

– Lan bilera. Bertara Osasun Kontseilaria agertuko da, Osasun Zerbitzuetako langileen estatutu markorako zirriborroaren berri emateko

15ean:

– Osasun Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, "medicamentazo" izenarekin ezagutzen dena Nafarroan ez aplikatzeko Nafarroako Parlamentuak eman zuen agindua betetzearen berri eman dezan.

17an:

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat neurri har dezan Adimen Osasunari atxikitako zenbait zerbitzuren berregituratzea dela-eta.

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA MENDI BATZORDEA

17an:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, nekazaritza ekologikoaren garapenaren berri eman dezan.

– Nafarroako nekazari eta abeltzainei arreta egiteko Eskualde Plana eztabaidatu eta bozkatzea.

29an:

– Nafarroako Foru Komunitateko Ureztalurren Plana eztabaidatu eta bozkatzea.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA

18an:

– Lan bilera. Bertara Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko ordezkariak agertuko da, Toki Administrazioaren arloko eta Hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzko foru lege proiektuen berri emateko.

23an:

– Toki Administrazioiko Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, Toki Administrazioari buruzko Foru Lege proiektuaren edukiaren eta ondorioen berri eman dezan.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

22an:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskatuta, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, lurzoruaren araubideari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legea Nafarroan aplikatzearen ondorioen berri eman dezan; eta Hirigintza Probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proiektuaren edukiaren eta eraginaren berri eman dezan.

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskatuta, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Europako Batasunak Nafarroako ubidearen inguruan eman dituen gomendioen betetze-mailaren berri eman dezan.

– Vélez Medrano jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Arazurin jarri beharreko planta fisiko-kimikoaren instalazioa atzera dezan.

30ean:

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Algecirasko Acerinox enpresan gertaturiko ihes erradioaktiboak Nafarroan eragin dituen edo eragin ditzakeen ondorioen berri eman dezan.

– Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Arga ibaiko egoeraren, azkenengo isurketa dela eta Beran den egoeraren eta euri ekosistemari buruz aurreikusitako jarduketaren berri eman dezan.

INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

30ean:

– Lan bilera. Bertara Nafarroako Gobernuako Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria agertuko da, PONSALen egoeraren eta balizko hautabideen berri emateko.

1998ko irailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

1ean:

– Mariano González Presencio jaunaren idazkia, Mahaiak 1998ko uztailaren 17an harturiko erabakiari alegazioak aurkezteko.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Haren bidez, hurrengoak izendatu ditu Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuetako, hezkuntzako eta osasuneko itunen sistema aztertzeke Batzorde Bereziko kide: Xabier Vélez Medrano eta Pedro Romeo Lizarraga jaunak.

2an:

– Rafael Elizalde jaunaren idazkia. Harekin batera, Nafarroako Foru Diputazioaren aurkako demanda deusezteari buruzko dokumentazioa.

– Comepor-ekin zerikusia duten hainbat gairi buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak egina.

– PFEZen aitortpenen urteroko kanpaina era-biltzen diren Antso Azkarra kaleko lokalei buruzko galdera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak egina.

– “Kartzela arloko laguntza juridikoaren zerbitzua” izeneko 33570-7 aurrekontu-lerroaren egoerari buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentario jaunak egina.

– Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Haren bidez, hurrengoak izendatu ditu Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuetako, hezkuntzako eta osasuneko itunen sistema aztertzeke Batzorde Bereziko kide: Juan Cruz Alli Aranguren jauna eta Reyes Cortaire andrea.

3an:

– José Otano Villanueva jaunaren idazkia. Harekin batera, hainbat informazio.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren langile funtzionarioak ordezkariak duten administrazio-kontseiluetako kideei buruzkoa, eta funtzionarioen eta funtzionario ez diren langileen ordezkari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Turismo Zuzendari Nagusiaren ebazpenak, aurtengo uztailari dagozkionak.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, “Kohesio Fondoak”, 36365-1 lerroa, aurrekontu kontusailari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” kontusailaren kargura baimendutako mugimenduei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, “Lursailak desjabetzea Iruñeko garraioaren hirirako” kontusailaren betetze mailari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, “Bidaiarien garraio zerbitzuei eusteko laguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, ebazpen bat, zeinak “María Ana Sanz” Bigarren Hezkuntzako Institutua handitzea baimentzen duen.

4an:

– Begoña Errazti Esnal eta Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentarioen idazkia. Haren bidez, hurrengo izendatu dute Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuetako, hezkuntzako eta osasuneko itunen sistema aztertzeke Batzorde Bereziko kide: Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andrea.

– Etorrinak bertakotzeko ematen diren dirulaguntzei buruzko galdera, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentario andreak egina.

– Burlatako osasun etxea handitzeko proiektuari buruzko galdera, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak egina.

– “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldearen idazkia. Mozio bat erretiratu dute; hain zuzen ere, Nafarroako Gobernu premiatzen duena Foru Lege proiektu bat bidaldez Osasun Sistema Nazionalako zerrendatik at dauden botikak finantzatzeari buruz.

– Sodepaz-en idazkia. Turkian gertatzen ari den giza eskubideen urratzea salatu dute.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, Toki Administrazioako kontseilariaren agerraldi bati buruz; hain zuzen ere, toki administrazioaren arloko eta hirigintza-probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzko foru lege proiektuen gaineko informazioa eman behar du.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak informazioa eman dezan 1998/1999 ikasturteari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, lurzoruaren problematikari buruzkoari, horrek etxebizitzaren prezioan duen eraginari buruzkoari eta ondasun publikoen eskuragarritasunari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, “Kanpoan dauden nafar etxeendako laguntzak” kontusailaren betetze mailari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, “Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriaren araubidea” kontusailaren betetze mailari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andrearen galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, hainbat espezialitatetako kanpoko kontsultak arratsaldez irekitzeari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andrearen galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Paz de Ziganda ikastolarekin eraikin berriak egiteko hartutako konpromisoei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andrearen galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere Landa-eskualdeetarako pizgarrien mapa finkatzeari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Burlatako kulturetxea finantzatzeari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andrearen galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, ikastoletako azpiegitura-lanak egitea xede duen 12751-9 aurrekontu lerroaren betetzeari buruzko galderari.

– Senideak-en idazkia. Hauxe eskatu dute: Giza Eskubideen Batzordean agertzea, Saoirse-rekin batera.

– Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: “José M^a Iribarren” ikastetxeari buruzko informazioa.

– “José M^a Iribarren” ikastetxeari buruzko galdera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentario jaunak egina.

7an:

– Nafarroako Auzitegi Nagusiaren idazkia, Ciordia andreak informatiko lanpostu baten deialdiaren aurka aurkeztu duen errekurtsoari buruz.

8an:

– Nafarroako Artxibo Nagusiko dokumentazio historikoari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak egina.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andrearen erabaki-proposamena, Istanbulen, Turkian, gertaturiko atxiloketei buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, NA-10.045 “Señorio de Sarría” ehiza-barrutiari eman zaion ziurtagiriaren euskarri den txostenaz, ehizahesi edo itxiturak basa-faunarentzako duen iragaitzasunari buruzko hartaz, hain zuzen.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, PEPRI delakoaren barruan 1992. urtean Nafarroako Gobernuak bideratutako espedientei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Castejónen gas naturaleko ziklo

konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andrearen galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Tafallako lurzati antolamenduaren inguruko espedienteari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, esne alorrean ustiatzeari borondatez uzteko urte aintzeko programa bat sortzeari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako eskubideen sal-erosketari eta erreserbari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako mahastiak berregituratzeko planei buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, ardoaren merkatu antolamendu komunaren (OCM) erreformari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Ziraukiko lurzati-kontzentrazioko obren garapenari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, oliba sektorearen inguruan burututako jardueri buruzko galderari.

– Bi urteko haurrak hartzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak egina.

9an:

– “Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeak aurkezturiko emendakinak. Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektua.

– Begoña Errazti Esnal andreak eta Fermín Ciáurritz Gómez jaunak aurkezturiko idazkia. Hauxe eskatu dute: lan-bilera, Industrias Cárnicas de Navarraren eta Estatuko ordezkariekin, Osasun Tasei buruzko Legearen proiektuari buruzko informazioa eman dezaten.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren agerraldia, informazioa eman dezan Argaren ibaiaren egoeraz -arrain hilak agertu baitira-, eta Nafarroako ibai ekosistemez.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak aurkezturiko emendakinak. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberari buruzko Foru Lege proiektua.

10ean:

– “José M^a Iribarren” ikastetxean D ereduko gela bat zabaltzeaz Parlamentuak hartutako erabakia betetzeko neurriari buruzko galdera, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak egina. Osoko Bilkuran emateko ahozko erantzuna eskatu dute.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, María Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentario andreak egindako galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Osasunbidetako osasun zentroetarako Arrow Iberica enpresak egindako osasun materialaren horniketari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren galdera bati emandako erantzuna; hain zuzen ere, Baztango aldean gertatu diren telebista-emisioen mozketari buruzko galderari.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Baztango Gorramendiko telekomunikazio zentroan gertatu emisio-mozketak direla-eta, Herrilan Departamentuak egin duen txostenari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, Nafarroako Gobernuak eta Retevisión-ek Baztango Gorramendiko telekomunikazio zentroko instalazioen gainean hitzartu dokumentuari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, alegia, Foru Administrazioiko departamentu bakoitzean

funtzionarioen artean modu askean izendatzeko postutan dauden langileen zerrenda, izen eta guztikoa. Karguaren izena, jasotako ordainketa eta haren kontzeptuak ere aipatzen dira.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, alegia, Foru Administrazioiko departamentu bakoitzean modu askean -funtzionario izan beharrik gabe izendatzeko postutan dauden langileen zerrenda, izen eta guztikoa. Karguaren izena, jasotako ordainketa eta haren kontzeptuak ere aipatzen dira.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, alegia, Foru Administrazioaren menpeko organismo autonomoetan funtzionarioen artean modu askean izendatzeko postutan dauden langileen zerrenda, izen eta guztikoa. Karguaren izena, jasotako ordainketa eta haren kontzeptuak ere aipatzen dira.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak eskaturiko informazioa, alegia, Foru Administrazioaren menpeko organismo autonomoetan modu askean -funtzionario izan beharrik gabe- izendatzeko postutan dauden langileen zerrenda, izen eta guztikoa. Karguaren izena, jasotako ordainketa eta haren kontzeptuak ere aipatzen dira.

– Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentario jaunaren eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andrearen emendakinak. Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberari buruzko Foru Lege proiektua.

– Desagertu berria den LH1etik heldu diren ikasleentzako aurreikusi diren alternatibei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina.

– Eugiko urtegia hustu eta gero antzeman den arrainen heriotzari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina.

– Buñuelgo "Santa Ana" ikastetxe publikoari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak egina.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak aurkezturiko erabaki-proposamena, Istanbulen gertatu eta hainbat GKEK salatu dituen gertaerei buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak aurkezturiko erabaki-proposamenak. Emaku-

meen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko Nafarroako jarduketa plana (1998-2000).

11n:

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Nafarroako Gobernuak eta Bosques Naturales enpresak sinatutako lankidetzak akordioari buruzko informazioa; izan ere, Nafarroako Oihan Planaren helburu batzuk garatu nahi dituzte.

– Nafarroako Gobernuak eta Bosques Naturales enpresak sinatutako lankidetzak akordioari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina.

– Baztan-Bidasoa ibaian, Elizondon, izandako kutsaguneari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak egina.

